

ZALDIBOBO

Mixel Ducauk bere taldea sortu zuen 1992an eta 1996 desegin zen.

Errobi euskal rock talde aitzindaria sortu zuen Mixel Ducau baionarrak, Anje Duhalderekin batera. Errobi taldea sortu eta hainbat kantarirekin lan egin ondoren (Txomin Artola, Iñaki Eizmendi, Ruper Ordorika, Pantxoa eta Peio...) Joseba Tapia (trikitixa), Mikel Artieda (baxua), Beñat Amorena (bateria) eta Frederic Gaillardet (teklatuak) bildu zituen Zaldibobora.

Folk musika egin zuten. Gitarrarekin eta soinu ttikiarekin, estilo eta erritmo alaia, freskoa eta dantzagarria egin zuten bi diskotan:

Basajaun (Elkar, 1992an) eta *Aio!* (Elkar, 1996an).


Joseba Tapia ekarri zuen egitasmora, eta bi musikarien arteko elkarketatik sortu zen Zaldibobo.

Kantuak egin, entsaiatu eta zuzenean estudiora jo zuen taldeak, aurretik zuzenekorik eman gabe.

Kantu ospetsuak hauek dira: Lurra, Kolore Kolore, Eguzkitan, Uhaina ...

Kantua Kolore Kolore:

https://www.youtube.com/watch?v=O_HrsLH8byQ



Kolore, kolore ta gustu guziak
denontzat, denontzat ez dira berdinak.

Urdina...zuk nahi duzu urdina
nik maiteago horia
bien artean ferdea sortuko da
ezkerra, eskuina, gibel edo aintzina
bakoitzak bere bidea
berarentzat onena!

Kolore, kolore ta gustu guziak
denontzat, denontzat ez dira berdinak.

Amaia, Jonekin maitemindua
zoritxarrez Arantxa da
Jonen amodioa, ze lastima!
alboan beti dauzkat
bai Olga ta bai Olatz
eta nik maitatzen dut Amaia
mundua gaizki egina da!

Kolore, kolore ta gustu guziak
denontzat, denontzat ez dira berdinak.

Egileak: Eider Zamora eta Kiara Gutiérrez.